ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2021eko uztailaren 23a, ostirala • 82 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## GUARDIAKO UDALA

**Zabor erroldak kobratzea, 2021eko lehen seihilekoa**

Nik, Lucio Castañeda Martínez de Treviño Guardiako (Araba) Udaleko alkate-lehendakariak, hauxe jakinarazten dut:

2021eko abuztuaren 3tik irailaren 3ra, bi egun horiek barne, ordaindu ahal izango dela borondatezko epean 2021eko lehen seihileko zabor tasa:

1. Zaborrak. 2021eko 1. seihilekoa.

I. Ordaintzeko epea.

A. Borondatezko aldia: 2021eko abuztuaren 3tik irailaren 3ra.

B. Betearazte aldia, ehuneko 5eko errekarguarekin: 2021eko irailaren 3tik aurrera premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, halaxe xedatzen baitu indarrean dagoen Dirubilketarako Araudi Orokorrak.

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

A. Banketxeetan helbideratutako ordainketak: Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta duten zergadunek ez dute inolako izapiderik egin beharko, baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontu berberean helbideratuta badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B. Helbideratu gabeko ordainketak: Ordainketa helbideratuta ez dutenek, Guardiako Udalaren bulegoetan soilik egin ahal izango dute, borondatezko aldian eta txartel bidez.

III. Gomendioak.

Banku helbideratzeetako altak edo aldaketak eta hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Guardiako Udalean izapidetu behar dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Guardia, 2021eko uztailaren 16a

*Alkate-lehendakaria*
*LUCIO CASTAÑEDA MARTÍNEZ DE TREVIÑO*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2021.07.23 05:27:34 Z